

KABLEBARIK SA: KABLE BARIK KARGATU DAITEZKEN **MUGIKORRAK ETA FUNDAK**

Gizakiok betidanik, behar bat sortzen zaigunean segituan asetzera ohituta gaude. Ez daukagu halako pazientziarik asko itxaroteko. Horregatik, sortu zen internet, edozer informazio behar genuela segudutan aurkitzeko; internetera sartzeko ordenagailuak erabiltzen ziren mugikorrak sortu ziren arte. Komunikazio bide azkarrena da, baina, horrez gain, internetera konektatzeko modurik errexenetakoa. Horrez gain, komunikabide azkarrena da. Gaur egun edonon gaudela internet erabili dezakegu sare sozialak erabiltzeko batez ere, hori delako guztioi txundituta utzi digun zerbait. Baina, badago zerbait ezin dugula beti eskuratu edonon.

Mugikorrak funtzionatzeko ezin bestekoa dute bateria goraino kargatuta edukitzea eguneko 24 orduetan inoiz ez itzaltzeko gailua. Geroz eta kable indartsuagoak eta azkarragoak sortu arren inoiz ezin gara kable kankar haietaz libratu. Gure produktua iritsi den arte.

Kontuan hartuta bateria ezinbestekoa dela mugikorrak eskaintzen dituen aukera eta erabilera ugariak erabiltzeko, ezin bestekoa da bateria topera kargatuta egotea. Aldi berean, kableak konsumitzen duten elektrizitate eta energia guzti horrek izugarri kutsatzen du gure planeta. Hemendik aurrera, mobilak txertatuta eramango duen gailu bat sortu dugu. Kable barik kargatu daitekeena edonon eta mugikorrak behar duenean eguzkiaren bitartez.

Gure enpresak batez ere bezeroen lasaitasuna bilatzen du, kableetan pentsatzen aritu arren beste gauzetan burua edukitzea da gure nahia eta eginkizuna. Horretarako, eguzki izpiekin kargatzen den plaka bat sortu dugu mugikorrak inoiz bateria gal ez dezan. Plaka 3x3 milimetro neurtuko ditu horrela mugikorrean txertatzeko toki falta ez edukitzeko eta batez ere energia nahikoa izateko mugikorra beti ondo kargatuta mantentzeko.

Gailua beti mugikorrak behar duenera egokitzeko sortua dago, hau da, ez da beti martxan egongo, honek bateria izorratzeko arriskua ekar dezakeelako, baizik eta mobila %40-raino kargatua dagoenean jarriko da martxan gure plaka; plaka beti egongo da eguzki izpiak xurgatzen baina behar duen aldi erabiliko du jasotako energia guzti hori.

Jada mugikor berria daukaten haientzat edo beste mugikorrik erosi nahi ez duten haientzat era beste zerbait pentsatu dugu, denok aukera antzekoak edukitzeko eta horrela inor ez geratzeko gure teknologia berritzaile gabe. Nahiz eta mobilean gailua txertatuta ez egon, funda berezi batzuk sortu ditugu bertan plaka txertatu egongo dena, funda hauek ez dute inolako kablerik behar mugikorren antzera, hortaz funda mobilari txertatzean kargatzeko aukera berdina egongo da. Aipatzekoa

da honetan ezberditasun xume bat egongo dela, aldez aurretik duzun mugikorra indukzio plaka bidez kargatu badaiteke fundak funtzio bera egingo du; bestalde, mugikorrak ez badu aukera hori **bluetooth** bidez konektatu beharko dira mugikorra eta funda, fundak bere funtzioa ekin dezan.

Gure proiektu berria, gaur egungo mugikorren erabileraren beharrea dago inspiratuta. Gaur egun bizi garen mundu dinamiko honetan beti mugikorraren pendiente egon arren beste gauza batzuk askoz ere garrantzitsuagoak iruditzen zaizkigu. Horregatik sortu dugu gure plaka; alde batetik gure bezeroen eguneko lasaitasuna bermatzeko eta beste aldetik gure planeta hain kutsatuta ez egoteko; energia iturri berriztaezinen erabilera masiboa delako. Ondorioz, eguzki izpiekin funtzionatzen dugun gailu bat sortu dugu, gure bezeroak kableak alde batera utz dezaten eta gure planeta garbiago egon dadin.